

# BESTELAKO XEDAPENAK

## OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 3098

*HUTS-ZUZENKETA, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 2ko 1208/2022 Ebazpenarena, zeinaren bidez arautu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren mendeko zerbitzu-erakundeetako profesionalentzako lanbide-garapenaren maila esleitzeko ezohiko deialdiaren baldintzak, eskaerak eta prozedura.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkari-tzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzen-keta egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Era horretako akatsak antzeman dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia-ren ekainaren 2ko 1208/2022 Ebazpenean, 2022ko ekainaren 24ko EHAA 122. zk, zeinaren bidez arautu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren mendeko zerbitzu-erakundeetako profesio-nalentzako lanbide-garapenaren maila esleitzeko ezohiko deialdiaren baldintzak, eskaerak eta prozedura. Hori dela eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

Euskarazko argitalpenaren 2022/2889 (8/5) orrialdean, 4. artikuluan.– Eskaerak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa, lehen paragrafoan,

honakoa esaten den lekuan:

«Parte-hartzaile bakoitzak eskaera bakarra egin beharko du Osakidetza-Euskal osasun zerbi-tzuaren Lanbide Garapeneko aplikazio informatikoaren bidez (<https://dp.osakidetza.eus/> helbidean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean dago erabilgarri). Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak jarriko ditu, bere zerbitzu-erakundeen bitartez, paragrafo honetan adierazitako moduan eskabidea aurkezteko behar diren baliabide informatikoak.»

Honakoa esan behar du:

«Parte-hartzaile bakoitzak eskaera bakarra egin beharko du Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Lanbide Garapeneko aplikazio informatikoaren bidez (<https://lanbidegarapena.osakidetza.eus/> helbidean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean dago erabilgarri). Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak jarriko ditu, bere zerbitzu-erakundeen bitartez, paragrafo honetan adierazitako moduan eskabidea aurkezteko behar diren baliabide informatikoak.»

Euskarazko argitalpenaren 2022/2889 (8/7) orriaren 6. artikuluan.– Maila esleitzearen ordain-keta-ondorioak,

honakoa esaten den lekuan:

«– 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, baldin eta eman beharreko zerbitzu-urteak 2020ko aben-duaren 31n bete badira.»

Honakoa esan behar du:

«– 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, baldin eta eman beharreko zerbitzu-urteak 2021eko aben-duaren 31n bete badira.»